



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2016KO UZTAILAREN 22KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Bilera berezia.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2016.07.22
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and
Ander Almandoz Indakoetxea jn. (6. puntuan sartu da).
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Igor Ugalde Salazar jn., kanpoan dagoelakoz.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn., kanpoan dagoelakoz.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Antonio Vergara Larrechea jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Unai Azpiroz Nazabal jauna: Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketaren behin betiko onespena.
- 4.-Jose M. Almandoz Tellechea jauna: Arau Subsidiarioen aldaketaren behin behineko onespena.
- 5.- Larreta alderdiko bidearen mugaketa.
- 6.-Ehiza eta Arrantzaleen Elkarteen aurkeztutako mozioa.
- 7.-Cornelio Ubiria Leiza jauna: trukaketa eskera.
- 8.-Medikuaren etxea alokatzeko behin betiko esleipena.
- 9.-Alkatearen ebazpenak.
- 10.- Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2016ko uztailaren 1ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ANTONIO VERGARA LARRECHEA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Antonio Vergara Larrechea jaunak, Unanua alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 48. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Antonio Vergara Larrechea jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-UNAI AZPIROZ NAZABAL JAUNA: ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2016eko maiatzaren 30ean egindako bileran, erabaki zuen Unai Azpiroz Nazabal jaunak aurkeztutako Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehakatur hasiera batez onartzea.

Akordioa jendaurrean egon da (2016ko ekainaren 15eko 115. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta prentsan) eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 70. artikuluari dagokionez 79.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Unai Azpiroz Nazabal jaunak sustatutako aipatutako aldaketa egiteko behin betikoz onartzea.

2) Espedientea Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentura bidaltzea aldaketa honen berri emanez

4.-JOSE M. ALMANDOZ TELLECHEA JAUNA: ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2016ko maiatzaren 6an egindako bileran, erabaki zuen Jose M.Almandoz Tellechea jaunak sustatutako Arantzako Arau Subsidiarioen egiturazko aldaketa hasiera batez onartzea, 5. poligonoko 236. lur zatiaren zati bat orain den lur urbanizaezineko oihan lurzorutik emankortasun ertainekoa izatera pasatzeko.

Akordioa jendaurrean egon da (2016ko maiatzaren 24ko 99. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta prentsan) eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Kontuan izanik Nafarroako Gobernuak ez duela txosten globala igorri.

Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 70. artikuluari dagokionez 79.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose M.Almandoz Tellechea jaunak sustatutako 5. poligonoko 236. lur zati baten egiturazko aldaketa behin behinekoz onartzea.

2) Espedientea Nafarroako Gobernura igortzea.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

5.- LARRETA ALDERDIKO BIDEAREN MUGAKETA.

Arantzako Udalak, 2015eko uztailaren 3an egindako bileran, erabaki zuen Larretako alderdiko mugaketa espedienteari buruz, Jose Antonio Bereau Macicior jaunari eta M. Jesus Echeverria Agesta andreari jakinaraztea baldintza berriak jartzen zirela mugaketa espedientearekin ez segitzeko (ordezko bide berriaren zabaltasuna 1,5 metrokoa izatea eta Goemendi S.L. enpresaren fakturak euren kargura izatea) eta horren adostasuna adierazteko 2015eko uztailaren 31 arteko epea ematea.

Kontuan hartuz emandako epean Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta M. Jesus Echeverria Agesta andreak ez zutela erantzunik eman, 2015eko irailaren 3an espedientea berriro hastea erabaki zen baina akordio bertan behera utzi zen 2015eko urriaren 26an eurekin bilera bat egin ondoren; bertan Jose Antonio Bereau Macicior jaunaren eta M. Jesus Echeverria Agesta andrearen lur zatien bazterretik markatzeko bide berriaren mugaketa lanak hasteko adostasuna agertu zuten eta ordu arteko egindako gastua euren gain hartu. Ondoren, adostutako bidea bertan markatu eta aktak jaso ziren eta maiatzaren 30a arte epea eman sinatzeko. Eguna hori pasa zen eskatutakoa sinatu gabe eta bertze epea jarri zen: ekainaren 30a.

Ikusirik ez dutela sinatu ez eta ere deus adierazi emandako epe horretan.

Ikusirik udaleko idazkariaren txostena.

Ikusirik Carlos Loizu Loizu teknikoaren 2014ko abuztuaren 25eko txostena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 114. artikulua eta ondorengo arabera.

Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erreglamenduaren 47. artikulua eta ondorengo arabera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako bidearen mugaketaren espedienteari hasiera emateko onartzea.
- 2) Adierazitako txostena eta gastoa onartzea.
- 3) Akordio honen berri bideak ukitzen dion jabe guztiei eta finka horien gainean errotutako eskubide errealean titularrei berri ematea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki oholean iragarkia argitaratzea eta ondorengo 40 egunetan interesatuek beren eskubideak defendatzeko egoki deritzen dokumentu guztiak aurkezteko epea irekitzea. Epe hori iraganik, ez da agiri edo alegaziorik onartuko.
- 4) Erabaki hau eta mugaketa egiteko eguna eta tokia Udalaren iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- 5) Arantzako Udaleko Alkatea eta Udaleko idazkaria, Udalaren ordezkari izendatzea, neurketa egunerako.
- 6) Erabaki hau Jabetzaren Erregistroari jakinaraztea, oharra idatz dezan. Halaber, erabaki honen berri emanen zaie Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako Departamentuari eta Herrilurren Atalari.
- 7) Erabaki honen aurka, mugaketa espedientea hasteko tramite hutsa denez, ez dago errekurtsorik jartzerik, ezertan ukatu gabe interesdunek eskubidea dutela bidezko iruditzen zaizkien alegazioak egiteko.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna sartu da bilera aretora.

6.-EHIZA ETA ARRANTZALEEN ELKARTEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Ikusirik Berako Ehiza eta Arrantza Kirol Elkarteak, Baztango Ehiza eta Arrantza Kirol Elkarteak eta Bidasoako Nazas Arrantza Elkarteak aurkeztutako mozioa.

Aztertu ondoren mozioa, 3. puntuak hauxe dio: Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuari, Berako San Martingo presa botatzeari lehentasuna ematea eta Endarlatsakoaren ateak ireki eta gisa honetan bi denboraldietan nola funtzionatuko lukeen ikustea eskatu nahi dio.

Juan M. Gonzalez Burguete jauna ados agertu da puntu horrekin; gainekoak Endarlatsako presa ere botatzeko alde agertu dira, lehenago edo geroago bota behar delakoz.

Ondorioz, ERABAKI DUTE:

1) Nafar Gobernuko Ingurumen Departamentuari "Linea Bidasoa" izeneko eta Mugaireko haztegitik egiten zen proiektua errekuperatzea eskatzea.

2) Nafar Gobernuko Ingurumen Departamentuari, espezie aloktono edo inbaditzaileengan eragiteko plan berezi bat eskatzea.

3) Nafar Gobernuko Ingurumen Departamentuari, Berako San Martingo eta Endarlatsako presak botatzea eskatzea.

4) Nafar Gobernuko Ingurumen Departamentuari gestio eta segimendu komisio bat sortzea non Udaletxeek eta arrantzarekin zerikusia duten Elkarte eta eragileek parte hartu dezaten.

7.-CORNELIO UBIRIA LEIZA JAUNA: TRUKAKETA ESKERA.

Ikusirik Cornelio Ubiria Leiza jaunak berriro ere aurkeztutako eskaera 6. poligonoko 336. lur zatiaren azalera 1. poligonoko 290. lur zatiarekin trukatzeko, horrela 1. poligonoko 89. lur zatian duen borda inguruan lurra partikularra lortzeko, ingurua guztia komunala denez.

Ikusirik 280/1990 Foru Dekretua, urriaren 18koa, Nafarroako entitate lokalen Ondasunen Arautegia onesten duena.

Kontuan hartuz aipatutako Foru Dekretuaren arabera, trukaketa prozedura erabiltzearen beharra edo komenigarritasuna frogatzen duen txosten bat aurkeztu behar dela.

Kontuan hartuz desafektazioaren xedea lur zati ttikien salmenta edo trukaketa denean, Nafarroako Gobernuak onura publiko edo sozialaren deklarazioa egin ahal izateko, entitateak alde zurretik frogatu egin beharko du xede hori kargaren edo erabilpenaren lagapenaren bidez lortzerik ez dagoela eta nolana ere bi aukera horiek lehentasuna izanen dutela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Cornelio Ubiria Leiza jaunak aurkeztutako trukaketa eskaera ez onartzea aipatutako arrazoiengatik eta adierazten dena frogatu arte.

2) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

8.-MEDIKUAREN ETXEA ALOKATZEKO BEHIN BETIKO ESLEIPENA.

2016ko maiatzaren 6an egindako bileran Udalak erabaki zuen medikuaren etxeko bizitza alokatzeko esleipena eta plegu administratiboa onartzea eta interesatuek izena emateko epea irekitzea 2016ko ekainaren 30a arte.

Epearen barne proposamen bakarra aurkeztu da: Estibaliz Iparraguirre Madariaga andrearena.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2016ko uztailaren 1ean egindako bileran Udalak erabaki zuen Estibaliz Iparraguirre Madariaga andreari behin behinekoz esleitzea medikuaren etxeko bizitzaren alokairua, hilero 355,00 euro ordaintzeko baldintza pean.

Kontuan hartuz pleguan ezarritako baldintzak eta proposamena hobetzeko ezarritako epea pasa denez inorek hobekuntzik aurkeztu gabe.

Kontuan hartuz esleipedunak dagoeneko 300,00euro fidantza jarriak dituela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Estibaliz Iparraguirre Madariaga andreari behin betikoz esleitzea medikuaren etxeko bizitzaren alokairua lau urteko (2020ko uztailaren 31a arte), hilero 355,00 euro ordaintzeko eta Udalak 2016ko maiatzaren 6an egindako bileran onartutako baldintza plegua betetzeko baldintza pean.

2) Kontratoa sinatzeko 25,00 euroko fidantza jartzeko eskatzea.

3) Alkateari ahalmena ematea kontratua sinatzeko.

9.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2016ko 95. ebazpenetik 97. ebazpena arte.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



